

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA ZEHATZEN ORRIEN DATUAK

LEHENENGO ATALA - KONTRATUAREN EDUKIA

OBJEKTUA	"Epartaidetza komunitatea" egitasmoa osatzen duten jarduerak diseinatu, dinamizatu, garatu eta jarraipena egiteko zerbitzua.
IZAERA	Zerbitzu-kontratua, 3/2011 LEDren IV. liburuko II. tituluko V. kapituluak arautzen duena.
BURUTZEKO EPEA	7 hilabete inguru , kontratua sinatzen denetik hasita, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiak epealdi hori ontzat jotzen badu. Bestela, 2017-06-30era arte.
LIZITAZIO-PREZIOA	21.842,97 euro, gehi BEZ. Guztira (BEZ barne) 26.430,00 euro.
AURREKONTU-SAILA	Udal Elkarteko aurrekontuan indarrean dagoen kontusaila.
ORDAINTZEKO MODUA	Hilero.
BERMEAK	Behin-behinekora: ez da eskatzen. Behin betikoa: esleipenaren prezioaren %5.
BESTE BETEBEHAR BATZUK	Erantzukizun zibileko poliza edukitzea, gutxienez 600.000,00 euroko estaldurarekin.

II. ATALA - KONTRATATZEKO PROZEDURA

PROZEDURA. MODUA.	Prozedura irekia.
ESLEITZEKO IRIZPIDEAK	1) Diru-eskaintza 0-55 2) Eskaintzaren kalitate teknikoa 0-45
FINANTZA, EKONOMIA KAUDIMENA	Finantza erakundeen txostenen bidez.
KAUDIMEN TEKNIKOA	Aurreko bost urteetan egindako lan edo zerbitzuak, kontratuaren objektu diren lanekin lotura zuzena dutenak. Kaudimen eta gaitasun teknikoa egiaztatuztat emango da lehiatzaileak egiaztatzen badu azken bost urteetan enpresa horrek lidergoen kompetentzien lanketan eta ezagutzak elkar aldatzeko komunitateen sorrera eta dinamizazioan garatu dituela, gutxienez, 2 proiektu. Gutxienezko proiektu horien fakturazioak 8.000,00 euroko kopurua gainditu beharko du guztira (BEZ barne).
ESKAITZAK AURKEZTEKO EPEA	15 egun, iragarkia GAOn argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.
ESKAITZAK AURKEZTEKO TOKIA	Urdaneta bidea 6, 20800, Zarautz Asteleheneretik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara

"EPARTAIDETZA KOMUNITATEA" EGITASMOA OSATZEN DUTEN JARDUERAK BURUTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA ZEHATZEN ORRIAK

LEHENENGO ATALA - KONTRATUAREN EDUKIA

1.- KONTRATUAREN OBJEKTUA ETA IZAERA

Kontratu honen objektua da "ePARTAIDETZA KOMUNITATEA" proiektua diseinatu, bideratu, dinamizatu eta jarraipena egiteko zerbitzua eskaintzea, hala nola eta besteak beste: batetik, lidergoaren inguruan ezagutzak elkar trukatzeko ingurune ziurra sortzeko oinarriak ezartzea; bestetik, ikaskuntza komunitatea dinamizatzea eta hobekuntza taldeak aurrera eramatea; eta, azkenik, komunitatearen plataforma martxan jartzea eta dinamizatzea, taldearen iraunkortasuna ziurtatzeko.

Proiektu hori kokatzen da Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gipuzkoako lehiakortasuna eta lurralde kohesioa sustatzeko" programan, eta Foru Aldundiko Ekonomia Sustapen, Landa Ingurune eta Lurralde Oreko Departamentuaren diru-laguntza jaso du.

Kontratazio hau zerbitzu-kontratu gisa gauzatuko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen 3/2011 LEDren 301. artikuluetan eta hurrengoetan ezartzen denaren argitara.

2.- KONTRATUA BETETZEKO EPEA

Kontratua burutzeko epea zazpi hilabete ingurukoa da, kontratua sinatzen denetik hasita, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiak epe hori ontzat ematen badu. Horrela ez baldin bada, kontratua burutzeko epea amaituko da 2017ko ekainaren 30ean.

3.- KONTRATUAREN PREZIOA

Honakoa da kontratu honen gehienezko lizitazio prezioa:

Prezioa: 21.842,97 euro.
BEZ (%21): 5.550,03 euro.
Guztira (BEZ barne) 26.430,00 euro.

Lehiatzaileek beren eskaintzan lizitazio-prezioa hobetu ahal izango dute.

Lehiatzaileek beren eskaintzan orduko prezioa ere adierazi beharko dute. Orduko prezioa izango da, gehienez ere, 69,29 euro (BEZ gabe).

Kontratua esleitu ondotik, esleipenaren prezioan sartuta egongo dira zerbitzua era egokian eskaintzeak sortzen dituen gastu eta zerga guztiak.

4.- FINANTZAKETA

Kontratuak dakartzkion betebeharrei aurre egiteko Udal Elkarteak badu nahikoa aurrekontu-kreditu, indarrean dagoen aurrekontuaren dagokion kontu-atalean.

5.- ORDAINTZEKO MODUA

Zerbitzua jaso eta ontzat jo ondoren, sinatutako kontratuaren argitara egindako lanen ordainketa egingo da hilerro, esleipendunak faktura elektronikoa aurkeztu eta Udal Elkarteak onartu eta gero.

Fakturatuko den kontratuaren prezioa doitu egingo da egiten diren lanen/orduen arabera. Doikuntza hori egiteko kontuan hartuko dira esleipendunak bere proposamenean eskaintzen duen orduko prezioa eta fase bakoitzerako aurreikusitako ordu kopurua.

Esleipendunaren betebeharra da Urola Kostako Udal Elkarteari faktura bitarteko eta formatu elektronikoaren bidez egin eta helaraztea.

Udal Elkarteak faktura elektronikoa jasoko ditu faktura elektronikoaren Gipuzkoako sarrera-puntu orokorretik. Sarrera-puntu hori dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa. Egoitza horretan bertan datoz sarrera-puntu orokorrari buruzko argibideak nahiz faktura elektronikoa egiteko programa doan jaitsi edo eskuratzeko esteka: <https://www.gfaegoitza.net/SarreraPuntua>

Edonola ere, fakturan zehaztuko dira lehiaketan aurkeztu eta kontratuan aplikatu behar diren unitate kostuak.

Ontzat jo ondoren, faktura ordainduko da kontratu-jabeak adierazitako finantza-erakundera egingo den transferentziaren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 216. artikulua aurreikusitako epeetan.

Hileko faktura horri Udal Elkarteak kenketak egin ahal izango dizkio, esleitutako zerbitzuak ez betetzearen, osorik ez betetzearen edo jar litezkeen zehapenen ondorioz.

6.- PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez da preziorik berrikusiko.

7.- BERMEAK

Ikuspegi ekonomikotik erreparatuta eskaintza onuragarriena egiten duen lehiatzaileak, bere gain hartutako betebeharrak betetzeko, behin betiko bermea jarri behar du Urola Kostako Udal Elkartearen alde, hain zuzen ere esleipenaren zenbatekoaren %5 (BEZ sartu gabe).

Behin betiko bermea jartzeko epea 10 egun baliaduneko izango da, berme hori jartzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Bermea jarri ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 96.1 artikulua ezarritako bideak erabiliz eta Administrazio Publikoaren Kontratuen Legearen Erregelamenduaren 55. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako baldintzen argitara. Betebehar hori esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio betetzen ez bada, Administrazioak kontratua amaitutzat joko du.

Bermea dirutan jartzen bada, bermearen zenbatekoa honako kontu zenbakian sartu eta ordainagiria Udal Elkarteak Diruzaintzan aurkeztuko da: Kutxa 2095.5076.41.1061556162.

Bermea itzuliko da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 102. artikuluan xedatutakoari jarraiki, berme-epea amaitu eta esleipendunak legezko betebehar guztiak bete ondoren.

Berme horrekin erantzun zaie aipatutako testu bateginaren 100. artikuluan zehazten diren kontzeptuei.

8.- KONTRATUAREN JABEAREN BETEBEHARRAK

Kontratua burutzeko arriskua kontratu-jabeari dagokio.

Kontratua burutzeko honakoak hartuko dira aintzat: administrazio baldintzen orri hauek, eskakizun teknikoen orriak, aplikatu behar den araubide orokorra eta, nolana ere den, kontratatutako lanek eskakizun dituzten arau teknikoak. Kontratua burutuko da Udal Elkartearen ikuskapen eta zuzendaritzapean. Udal Elkarteak ikuskapen eta zuzendaritza lanak ahoz nahiz idatziz egin ahal izango ditu.

Kontratuaren jabearena da egindako lanen kalitate teknikoaren eta zerbitzuen erantzukizuna. Lanak egiten diren bitartean izan litezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek Administrazioari edo hirugarrenei sor diezazkiekeen ondorioen erantzukizuna ere kontratuaren jabearena izango da. Zerbitzua behar bezala burutzen dela zainduko du, eta hori lortzeko behar diren neurriak hartuko ditu.

Kontratatutako beharrezko ekipamendu eta bitartekoak jarri behar ditu kontratuari dagozkion lanak ondo gauzatu eta kontratua aipatutako epean burutzeko.

Kontratuaren jabeak zerbitzu-arduradun bat izendatuko du eta arduradun hori izango da Udal Elkarteak zerbitzu horren jarraipena egiteko izendatzen dituen Udal Elkarteko langileekin harremana izango duena. Udal Elkarteak ezarriko du Udal Elkarteko zerbitzu teknikoen eta kontratu-jabearen arteko informazio-emate eta bileren maiztasuna. Udal Elkarteak arduradun hori aldatzeko exijitu ahal izango du, zerbitzuaren onerako beharrezkoa dela irizten baldin badu. Era berean, Udal Elkarteak informazioa bildu eta kontratu-jabea egiten ari den lana gainbegiratu ahal izango du.

Esleipendunak kontratua behar bezala burutzeko beharrezko diren zerbitzu guztiak egingo ditu, bestelako ordainik gabe, lan-bilera eta informazio-bileratara joatea barne.

Kontratu-jabeari dagokio zerbitzuaren objektu diren lanak burutzeko beharrezko diren baimen eta lizentziak eskuratzea eta ordaintzea eta baimen horien eskumena duten organismoek jarritako baldintza eta eskakizunak betetzea.

9.- KONTRATUAREN JABEAREN LAN-BETEBEHARRAK

Kontratu honen objektu diren lanak egiten dituzten langileei dagokienez, esleipendunak lanaren, Gizarte Segurantzaren, laneko segurtasun eta higienez eta lan arriskuak prebenitzearen arloan indarrean dauden legeko xedapenak bete behar ditu. Urola Kostako Udal Elkarteak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

Esleipendunak azaroaren 8ko 31/1995 Legea (laneko arriskuen prebentzioa), urtarrilaren 30eko 171/2007 Errege Dekretua (aipatutako lege horren 24. artikulua, enpresa-jardueren koordinazioaren atala, garatzen duena) eta lan arriskuen prebentzioaren arloan indarrean dauden bestelako xedapenak bete behar ditu, baldintzen orri hauen III. ERANSKINEAN ezarritakoarekin bat etorriz.

Zerbitzua eskaintzen duten langileen zerrenda (kontratuari eranskin gisa atxikiko zaiona) ez da handituko edo ordezkatu, Udal Elkarteak berariaz horretarako baimenik eman ezean. Hori egiteko, aurrez behar bezala justifikatu beharko da ezin dela zerbitzua egoki eskaini langileen zerrenda handitu gabe.

10. KONTRATU-JABEAREN BETEBEHARRAK DATUEN BABESARI DAGOKIONEZ

Enpresa esleipendunaren betebeharra izango da parte hartzen duten enpresen datuen gaineko sekretua zaintzea, datu horien izaera konfidentziala aintzat hartuta. Esleipendunak Udal Elkarteari eta eraginda ikusi diren pertsonen kalte-ordainak eman beharko dizkie isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalteen truke.

Halaber, kontratua burutzeko izaera pertsonaleko datuak erabili behar baldin baditu, izaera pertsonaleko datuak babesteko indarrean dagoen araubidea beteko du esleipendunak. Horretarako, Udal Elkarteak eta esleipendunak izaera pertsonaleko datuak hirugarren baten bidez tratatzeko kontratua sinatuko dute. Kontratu hori administrazio-kontratuari atxikiko zaio, eranskin gisa.

11. KONTRATU-JABEAREN BETEBEHARRAK HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILPENARI DAGOKIONEZ

Arau orokor gisa, kontratuaren xede diren azterlan, txosten, proiektu eta bestelako lanak hizkuntza ofizial bietan egingo dira (euskaraz eta gaztelaniaz).

Kontratuaren objektu diren zerbitzuek beste batzuekin harremanak izatea baldin badakarte (enpresekin edo, oro har, herritarrekin), kontratua burutzen ari den enpresaren eta erabiltzaile edo herritarren arteko komunikazioetan (ahozkoetan nahiz idatzietan) erabiliko da erabiltzaile edo herritarrek hautatzen duten hizkuntza, kasuan kasu. Berariaz hizkuntza hauturik ez baldin badago, kontratuaren esleipendunak pertsona fisiko nahiz juridikoei kontratuaren objektua betetzen ari dela egiten eta bidaltzen dizkien komunikazio eta jakinarazpenak (fakturak eta bestelako trafiko dokumentuak barne) bi hizkuntza ofizialetan bidaliko ditu. Nolanahi ere den, herritarrak edozein unetan erabili ahal izango du hizkuntza hautatzeko eta bi hizkuntzetako bat erabiltzeko eskubidea.

Esleipendunaren eta Udal Elkartearen ahozko komunikazioak euskaraz izango dira (telefono komunikazioak, lan-bilerak, aurkezpenak...). Esleipendunak izendatutako ordezkari edo teknikariek baldintza hori bete ezin badute, Udal Elkarteak langile edo teknikari horiek aldatzeko eskatu ahal izango du. Esleipendunaren eta Udal Elkartearen arteko komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz izango dira, bai komunikazio formalak (txostenak, memoriak...), bai komunikazio informalak (lan zirriborroak, mezu elektronikoak...). Udal Elkarteak komunikazio formalak euskaraz soilik izateko eskubidea gordetzen du.

Baldintza honetan eta eskakizun teknikoan orrietan ezarritako hizkuntza baldintzek kontratua burutzeko funtsezko obligazio izaera daukate, 3/2011 LEDren ondorioetarako, eta hortaz, baldintza horiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea (223.f) artikulua argitarara) edo 212. artikuluan aurreikusitako zehapenak ezartzea ekar dezake, kontratuaren jabeak kontratuaren funtsezko betebeharrak ez betetzeagatik. Zehapenak ezarriko dira kasuan kasu, ez betetzearen larritasuna kontuan hartuta.

12.- LAGATZEA ETA AZPIKONTRATATZEA

Esleipendunak ezin dizkio beste pertsona edo erakunde bati laga edo eskualdatu kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak, aurrez eta berariaz Udal Elkartearen baimena izan ezean.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 227. artikulua ezarritakoarekin bat etorri eta eskatutako baldintzak betetzearen baldintzapean, esleipendunak beste batzuekin hitzartu ahal izango du kontratuaren zati batzuk garatzea, gehienez ere esleitzeko prezioaren %20ko mugarekin.

Azpikontratua egiteko ezinbestekoa izango da aurrez esleipendunak Administrazioari jakinaraztea azpikontratua egingo duela eta azpikontratutako enpresak zein atal egingo dituen.

13.- ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Esleipenduna izango da kontratua burutzeko egiten dituen lanen ondorioz beste batzuei eragindako kalte eta galeren erantzule, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 214. artikuluaekin bat etorri.

Kontratuaren jabeak aseguru bat kontratatuta izan behar du kontratua betetzeko epean eta berme epean, kontratua burutzen ari dela eragin ditzakeen kalte eta galeren erantzukizunari aurre egiteko. Aseguru horrek 600.000,00 euroko estaldura izango du gutxienez eta, besteak beste, honako hauek berariaz adieraziko ditu: aseguruak (aseguratuaren artean Urola Kostako Udal Elkarteak berariaz agertuko da), gutxieneko estaldurak eta bermatutako kopuruak, epeak, adierazitako aseguraturako kopuruak... Datu horiek guztiak edozein unetan egiaztatu beharko ditu, Administrazioak horrela eskatuz gero. Horretarako, jatorrizko poliza, polizaren primen ordainagiriak edo aseguru-etxearen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu kontratuaren jabeak. Baldintza honetan ezarritako eskakizunak ez egiaztatzea kontratua amaitutzat emateko arrazoi izango da, izan ere, 3/2011 LEDren 223 f) artikulua argitara, betebeharrak hori funtsezko kontratu-betebeharra da.

14. KONTRATUA ALDATZEA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du, interes orokorreko arrazoiengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren I. liburuko V. idazpuruan aurreikusitako egoera eta moduetan.

15.- KONTRATUA EZ BETETZEA, ETA EZ BETETZEAGATIK ESLEIPENDUNARI JARRIKO ZAIZKION ZEHAPENAK

A) KONTRATUA BETETZEKO EPEA: Kontratuaren jabeak bere errua dela eta ez badu kontratua burutzeko epea betetzen (epe orokorra nahiz tarteko epeak), Administrazioak aukera izango du, alde batetik kontratua amaitzeko (kontratuaren jabeak bermea galduko luke) edo, beste alde batetik, hurrengo baldintzan zehazten diren zehapenak jartzeko. Atzerapenengatik jarritako zehapenak kontratuaren prezioaren %5eko multiplora iristen badira, Kontratazio Organoak eskubidea izango du kontratua amaitutzat emateko edo, beste zigor batzuk jarri eta kontratuarekin jarraitzeko.

B) ZERBITZUA OSORIK EZ ESKAINTZEA: Esleipendunak bere errua dela eta kontratuak zehazten duen objektua ez badu osorik betetzen, Administrazioak aukera izango du, alde batetik, kontratua amaitzeko (kontratuaren jabeak bermea galduko luke) edo, beste alde batetik, hurrengo baldintzan zehazten diren zehapenak jartzeko.

16.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

Baldintzen orriotan zehazten diren arau-hausteak sailkatuko dira arau-hauste arin, larri edo oso larrietan.

Arau-hauste arinak zehaztu ahal izango dira 600 euro arteko isunekin.

Arau-hauste larriak zehaztu ahal izango dira 601-1.500 euro bitarteko isunekin.

Arau-hauste oso larriak zehaztu ahal izango dira 1.501-6.000 euro bitarteko isunekin.

Aurrez esleipendunari entzunaldirako eskubidea eman eta arau-hauste bat egin duela egiaztatu ondoren, kontratazio organoak baldintza honen argitara arau-hausteari dagokion zehapena jarriko dio, dagokion fakturan kenketak egiteari kalterik egin gabe.

Esleipendunak arau-hausteak egiten jarraitzen badu, Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek kontratua amaitutzat emateko proposamena egingo dute eta esleipendunak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko aukerarik izango.

a) Arau-hauste arinak: Arau-hauste arintzat hartuko dira honakoak:

1. Zerbitzuak eskaintzea era desegokian (lanen kalitatea, beharrezko bitartekoak ez erabiltzea, materialaren egoera eta mantentze-lanak, lanak egiteko erritmoa, Udal Elkarteak edo Udal Elkarteko zerbitzu teknikoek zerbitzua zuzendu, ikuskatu edo kontrolatzeko emandako aginduak ez betetzea, lan

- programa aldatzea eta abar), desegoki eskaintzea etengabea ez denean eta aurrez 2 aldiz baino gehiagotan zehaztu edo zigortu ez bada.
2. Zerbitzua etetea (edozein lanetan), Udal Elkarteari jakinarazi gabe, arrazoia edozein dela ere, betiere aurrez gehienez 2 aldiz gertatu ez bada.
 3. Erabiltzaileak adeitasunik gabe tratatzea.
 4. Arduraduna lokalizatzea ezinezko gertatzea edo zerbitzuko ordutegitik kanpo ez atenditzea egin beharreko lanen gaineko aginduak, betiere kontratua indarrean den epealdian 2 aldiz baino gehiagotan gertatzen ez bada.
 5. Kontratatutako bidali behar duen informazioa (informazioa, parteak...) ez bidaltzea edo ezarritako epeetan ez bidaltzea (berandu bidaltzea), betiere kontratua indarrean den epealdian 2 aldiz baino gehiagotan gertatzen ez bada.

b) Arau hauste larriak: Arau-hauste larritzat hartuko dira honakoak:

1. Esleipendunak ez betetzea honakoak: indarrean dauden lege nahiz erregelamenduetan ezarritako xedapenak, lan hitzarmena, eskatutako aseguruak, ingurumena, segurtasun neurri eta osagaiak, lan arloko betebeharrak, Gizarte Segurantzako betebeharrak, zerbitzuari atxikitako langileen segurtasun eta osasuna, makinaren araubideak eta abar.
2. Kontratatutako ez betetzea baldintzen orrietan ezarritako gainerako baldintzak edo bere eskaintzan adierazitako baldintzak.
3. Zerbitzua behin eta berriz era desegokian eskaintzea.
4. Zerbitzua eskaintzeko era, antolaketa eta araubideari buruz kontratatutako emandako aginduak behin eta berriz ez betetzea.
5. Lan parteak edo bestelako txostenak faltsutzea.
6. Zerbitzua eskaintzen duten langileak aldatzea, aurrez Udal Elkarteari jakinarazi gabe.
7. Kontratuaren objektu diren zerbitzuak fiskalizatzeko eta kontrolatzeko Udal Elkarteak duen eginkizuna oztopatzea edo ezezkoa ematea.
8. Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.

c) Arau-hauste oso larriak: Arau-hauste oso larritzat hartuko dira honakoak:

1. Kontratatutako zerbitzuak eskaintzen ez hastea baldintzen orrietan ezarritako epean.
2. Kontratatutako zerbitzuak etetea edo ez eskaintzea, ezinbesteko kausengatik gertatzen denean izan ezik.
3. Zerbitzuak eskaintzeko eran iruzur egitea, bitarteko egokiak edo eskatutako oinarritzko elementuak ez erabiltzea edo zerbitzuari atxikitako materialak desagertzea.
4. Zerbitzuari atxikitako materialak (modalitate edo titulua edozein dela ere) erabiltzea kontratatutako zerbitzu edo objektua ez den beste zerbaitearako, aurrez Udal Elkartearen baimenik izan gabe.
5. Kontratatutako edo bere langileek partikularren edo zerbitzuaren erabiltzaileengandik ordainen bat jasotzea.
6. Arau-hauste larriak behin eta berriz egitea.

17.- KONTRATUA AMAITZEA

Administrazio kontratua amaituko da bete delako edo amaitutzat jo delako.

Kontratuaren jabearekin kontratua bete dela iritziko zaio kontratuaren jabeak kontratuaren xedea guztiz betetzen duenean, kontratuko baldintza guztiekin bat etorritik eta Administrazioaren onarpenarekin.

Kontratua amaitutzat joko da kontratua bera edo orriotako baldintzak betetzen ez badira, edota Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 223. eta 308. artikuluetan adierazitako arrazoiengatik; halaber, kontratua amaitzeak Lege horretako 309. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

18.- LANAK HARTZEA ETA BERME EPEA

Lanak hartzeko egintza formal eta positiboa egingo da kontratuaren objektua burutu eta, gehienez ere, 30 eguneko epearen barruan. Egintza hori burutzeko zerbitzuaren behin betiko txostena aurkeztuko da.

Horrekin batera, hilabete 1eko berme-epea jartzen da, zerbitzua hartzeko egintza formalaren datatik kontatzen hasita, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean eta lege hori garatzen duen erregelamendu orokorrean aurreikusitako ondorioetarako.

Berme epe horretan kontratuaren jabea izango da egindako lan edo zerbitzuetan atzemandako akats edo okerren erantzule eta akats edo oker horiek konpondu egin beharko ditu. Epe hori igaro eta Administrazioak ezer adierazten ez badu, amaitutzat joko da esleipendunaren erantzukizuna.

19.- ADMINISTRAZIOAREN ESKUBIDEAK

Udal Elkarteak, zerbitzua kontratatzen duen administrazioa izanik, egoki iritzitako jarraibide eta aginduak eman ahal izango ditu, zerbitzua era egokian burutzeko, betiere hitzartutako kontratuaren eginkizunak aldatu gabe.

Eta, oro har, Udal Elkarteak eskubidea izango du kontratua interpretatzeko, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebazteko, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzeko, kontratuari amaiera emateko eta amaiera horren ondorioak zehazteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginean ezarritako muga, baldintza eta ondorioekin.

Udal Elkarteak zerbitzua ikuskatu eta zainduko du horretarako izendatutako teknikariaren edo teknikarien bitartez.

Kontratazio-organoek hartzen dituzten akordioak berehala betearaziko dira. Akordio horien aurka, kasuan kasu, urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen ohiko Administrazio Prozeduraren Legearen) 112. artikulua zehazten dituen errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira.

BIGARREN ATALA - KONTRATATZEKO PROZEDURA

20.- ESLEITZEKO IZAPIDEAK ETA PROZEDURA

Kontratazio-espedientea modu arruntean izapidetuko da, lehiaketa eta esleipena prozedura irekiaren bidez burutuko dira eta kontratua esleituko zaio ekonomikoki onuragarriena den eskaintzari.

21.- ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Kontratua esleituko da jarraian azaltzen diren balorazio-irizpideetan oinarrituko. Hona hemen irizpide horiek garrantzi handienetik txikienera eta puntuazioaren arabera sailkatuta:

a) Diru-eskaintza: 55 puntu

a.1 DIRU-ESKAITZA: 55 puntu.

Diru-eskaintza ekonomikoenari 55 puntu emango zaizkio. Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da honako eragiketatik: preziorik baxuenaren eta baloratzen den lehiatzailearen eskaintzaren arteko zatidura biderkatuko da irizpideak dituen puntu guztiekin. Hau da, $Lp = Eb/Le \times 55$

Hala nola:

Lp: Lehiatzailearen puntuazioa

Eb: Eskaintza baxuena

Le: Lehiatzailearen eskaintza

Eskaintza anormal edo desorekatutzat hartuko dira (eta lehiaketatik baztertu ahal izango dira) diru-eskaintza guztien batez besteko aritmetikoa baino 10 unitate beherago (edo gehiago) daudenak. Eskaintza jakin bat anormal edo desorekatutzat jotzeko beharrezkoa izango da egoera horretan dauden lehiatzaileei informazioa eskatzea eta dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza jasotzea.

b) Eskaintzaren kalitate teknikoa: 45 puntu

Honako alderdiak baloratuko dira:

- Proposatutako ekintzak: 10 puntu
- Erabiliko den metodologia: 10 puntu
- Ideia berritzaileak: 5 puntu
- Proposatutako lantaldea: 20 puntu, honela banatuta:
 - Esperientzia Lidergo konpetentzien garapenean: 5 puntu
 - Esperientzia eragile ezberdinekin komunitate edo sareak sortu eta dinamizatzen: 5 puntu
 - Esperientzia erakundeetan partaidetza sistemak lantzen eta dinamizatzen: 5 puntu
 - Esperientzia erakundeetan aldaketa prozesuak eta pertsonen konpetentzien hobekuntza prozesuak eraiki eta garatzen: 5 puntu

Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 150.4 artikulua ezarritakoaren arabera, lehiatzaileek 20 puntu eskuratu behar dituzte gutxienez atal honetan, lehiaketan jarraitu ahal izateko.

22.- KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA

Jarduteko gaitasuna duen pertsona fisiko nahiz juridiko orok (espainiar nahiz atzerritar) du prozesu honetan parte hartzeko aukera, betiere kaudimen ekonomikoa, finantzaketa kaudimena eta kaudimen tekniko edo profesionala egiaztatzen badute.

Gainera, enpresariak kontratu honen xede den jarduera gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki behar dute.

Pertsona juridiko bat kontratu baten esleipendun izan daiteke, baldin eta kontratu horren objektuko lanak pertsona juridiko horren jardueraren helburu, objektu eta arlokoak baldin badira, pertsona juridiko horren estatutu edo arau eratzaileren argitara.

Inola ere ezingo dute Udal Elkartearekin kontraturik egin Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu bateginaren 60. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean dauden pertsonak.

23.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitazio honen espedientea, baldintzak eta gainerako xehetasunak aztertu ahal izango dira Udal Elkarteko Idazkaritza-Kontuhartzailertzan, proposamenak aurkezteko epearen barruan, astelehenetik ostiralera, 8:00etatik 14:00etara.

Halaber, lehiaketa iragarriko da Udal Elkartearen kontratatzailearen perfilean (www.urolakosta.eus) eta bertan eskuratu ahal izango dira baldintzen orriak eta gainerako dokumentuak.

Eskaintzak aurkeztu behar zaizkio Urola Kostako Udal Elkarteari, 39/2015 Legeak ezartzen dituen lekuetakoren batean. Proposamena aurkez daiteke postaz, telefax bidez edota bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoen bidez.

UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

Urdaneta bidea 6, 20800 Zarautz
Tel. 943 890808 / Faxe 943 835147
E-maila: idadzkaritza@urolakosta.eus
Kontratatzailearen profila:
www.urolakosta.eus

Eskaintzak aurkezteko epea egutegiko **15 egunekoa** izango da, lizitazio-iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Egun hori larunbata, igandea edo jaieguna baldin bada, epea hurrengo egun baliodunean amaituko da.

Lizitatzailerak bere proposamena posta bidez igortzen badu, igorpenaren data justifikatu beharko du postetxean, eta, egun berean, eskaintza igorri duela jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari telefax edo telegrama bitartez. Komunikazio horretan adieraziko ditu espediente kodea, kontratuaren objektuaren izenburu osoa eta lehiatzailearen datuak. Bi baldintza horiek betetzen ez badira, eta dokumentazioa adierazitako epetik kanpo jasotzen badu organo kontratatzaileak, ez da dokumentazioa onartuko. Bestalde, adierazitako datatik egutegiko hamar (10) egun igaro badira, eta proposamena jaso ez bada, ez da inola ere onartuko.

Bitarteko elektronikoa, informatikoa edo telematikoa erabiltzen badira, bitarteko horiek beteko dituzte indarrean dagoen araubideak ezartzen dituen baldintzak.

Proposamena aurkeztu ondoren ezingo da atzera egin, administrazioaren kontratuen araubideak aurreikusitako kasuetan izan ezik.

Proposamenak isilpekoak dira eta, beraz, Urola Kostako Udal Elkarteak beharrezko bitarteko guztiak jarriko ditu lizitazio publikoa egin bitartean isilpekoak izateko.

Proposamena aurkezteak esan nahi du lizitatzailerak erabat eta salbuespenik gabe onartzen dituela orriotako, eskakizun teknikoaren orriotako eta gainerako kontratu-dokumentuetako baldintzak; gainera, lehiatzaileek erantzukizun-adierazpena egingo dute, aurkeztutako datu guztiak zehatzak eta egiazkoak direla adierazi eta baldintza-orri hauen xede den kontrataziorako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela ziurtatzeko.

Lizitatzailerak bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du. Gainera, ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte gisa proposamenik aurkeztu banaka proposamena aurkeztu badu; halaber, lizitatzailerak batek ezingo du aldi baterako enpresa-elkarte batean baino gehiagotan aurkeztu. Arau horiek haustea lizitatzailerak horrek sinatutako proposamen guztiak baztertuta gelditzea ekarriko du.

Lizitatzailerak beren proposamena itxita hiru gutun-azalotan aurkeztu behar dute, hiruretan honako izenburua eta espediente kodea idatzita: "**ePARTAIDETZA egitasmoko jarduerak burutzeko zerbitzua, espediente kodea 2016IKIE0005**".

Gutun-azal bakoitzean enpresaren izena edo proposamena egin duenaren izen-abizenak idatziko dira. Lizitatzailerak edo haren ordezkariak hiru gutun-azalak sinatu behar ditu.

Gainera, gutun-azal bakoitzean adieraziko da zein den gutun-azalaren edukia, honela:

- "A gutun-azala: Administrazio dokumentuak"
- "B gutun-azala: Dokumentazio teknikoa"

▪ **“C gutun-azala: Diru-eskaintza”**

Gutun-azalean honako dokumentu hauek sartu behar dira:

“A gutun-azala: Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena”

- 1) Enpresariak edo, hala badagokio, haren ordezkariak, jarduteko gaitasuna duela egiaztatzeko dokumentuak:
 - Proposamena aurkezten duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala, norberaren nahiz ahaldunaren izenean.
 - Lizitatuzailea pertsona juridikoa baldin bada, jarduteko gaitasuna egiaztatzeko aurkeztu behar ditu pertsona juridiko hori eratzeko eta aldatzeko eskriturak, Merkataritza Erregistroan behar bezala izena emanda. Identifikazio Fiskaleko Txartela ere aurkeztu behar du, IFZ agertzen duena.
 - Beste norbaiten izenean proposamena sinatu edo beste norbaiten ordezkari agertzen den pertsonari behar besteko ahalmena emango dion dokumentua. Lizitatuzailea pertsona juridikoa bada, ahalordeak inskribatuta egon behar du Merkataritza Erregistroan. Ahalmena jarduera jakin baterako bakarrik izanez gero, ez da beharrezkoa Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroko Erregelamenduaren 94.1 artikuluari jarraiki.
 - Jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, Espainiakoak ez izanik Europar Batasunekoak diren enpresek egiaztatu beharko dute dagokien lanbide edo merkataritza erregistroan izena emanda daudela, beren estatuko araubideak horrela eskatzen baldin badu.
 - Horietatik kanpo geratzen diren nazioarteko beste estatuetakoen enpresek Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 55. artikuluan zehazten denaren arabera egiaztatu beharko dute jarduteko gaitasuna.
- 2) Kaudimen ekonomikoa eta finantza-kaudimena ondorengo bidez egiaztatuko da:
 - Enpresariarekin lan egiten duen finantza-erakunde baten ziurtagiria. Ziurtagiri horrek enpresariak kontratuaren objektua Urola Kostako Udal Elkartearekin kontratatze nahikoa kaudimen ekonomiko baduela adieraziko du, eskakizun teknikoak eta administrazio-baldintzen orrietan ezarritako eskakizunak betez.
- 3) Kaudimen teknikoa eta profesionala ondorengo bitartez egiaztatuko da:
 - Aurreko bost urteetan egindako lan edo zerbitzuak, kontratu honen objektu diren lanekin lotura zuzena dutenak. Adierazi behar da kopurua, datak eta onuradun publikoak eta pribatuak.

Kaudimen eta gaitasun teknikoa egiaztatutzat emango da lehiatzaileak egiaztatzen badu azken bost urteetan enpresa horrek lidergoan kompetentzien lanketan eta ezagutzak elkar aldatzeko komunitateen sorrera eta dinamizazioan garatu dituela, gutxienez, 2 proiektu. Gutxienezko proiektu horien fakturazioak 8.000,00 euroko kopurua gainditu beharko du guztira (BEZ barne).

Egindako lan edo zerbitzuak honela egiaztatuko dira: hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean eskumena duen organoak egindako ziurtagiri edo bisatuaren bidez; hartzailea subjektu pribatua denean, berriz, hartzaileak egindako ziurtagiriaren bidez edo, ziurtagiririk ezean, enpresariaren aitortpen baten bidez.
- 4) Berriazko erantzukizun-adierazpena (I. ERANSKINAREN arabera egina), adierazten duena eskaintza izenpetzen duenak eta horrek ordezkatzeko erakundeak ez dutela debekurik Administrazioarekin kontraturik egiteko, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan adierazten diren debeku-egoeren arabera.

- 5) Zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela adierazten duen berariazko erantzukizun-adierazpena. Esleipendunak betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzea behar du kontratua esleitu aurretik, 10 egun balioduneko epearen barruan, hain zuzen ere egiaztatzen hori egiteko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktatu hasita.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergan alta emanda dagoela egiaztatzeko ekitaldi horretako alta-agiria edo azken ordainagiria aurkeztu behar da. Altak izan behar du kontratuaren objektuari dagokion epigrafekoa. Horrekin batera, erantzukizun-adierazpena aurkeztu behar da, zerga horretan baxerik ez duela eman adierazten duena.

- 6) Aldi baterako enpresen arteko elkarte bat bada proposamena egiten duena, elkarte osatzen duten guztiek egiaztatzea behar du gaitasuna eta kaudimena. Gainera, enpresa horien guztien legezko ordezkariak izenpetutako dokumentu bat aurkeztu behar du. Dokumentu horretan adieraziko dituzte honakoak: proposamena izenpetzen duten enpresaburuaren izenak eta egoera; enpresen konpromisoa, esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkarte formalki eratzeko; enpresa bakoitzak enpresa-elkartean duen partehartzea eta kontratua indarrean dagoen artean Administrazioaren aurrean guztien ordezkari izango den pertsonaren izendapena.
- 7) Atzerriko enpresek aitortzea aurkeztu behar du, adierazten duena Espainiako maila guztietako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla kontratuak zuzenean edo zeharka izan ditzakeen gorabehera guztiak ebazteko. Halaber, beharrezko balitz, lehiatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzioari uko egiten diola adierazi behar du. Gainera, atzeritar izateagatik aplikatu behar zaizkien legearen eta araudiaren xedapenekin bat etorri behar du enpresa horiek, Europar Batasuneko kide diren edo ez aintzat hartuz.
- 8) Posta elektronikoen helbidea (horrela nahi bada), jakinarazpenak egiteko.
- 9) Gutun-azal honetan sartutako dokumentu guztien zerrenda, zenbakiz antolatuta.

* OHARRA: Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztatzea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztatzea edo Gipuzkoako Foru Aldundikoak aurkezten bada, ez da beharrezkoa izango egiaztatze horietan egiaztatutzat jotzen diren baldintzen egiaztatzeak aurkeztea, betiere egiaztatzean dokumentu zehatz horiek ageri badira eta egiaztatze horiek baliozkoak direla eta indarrean daudela dioen zinpeko aitortzea aurkezten bada.

Udal Elkarte honek izapidetutako beste kontratazio-espedita batera 1. atalean eskatzen den dokumentazioa aurkeztu dutenek (esleipen-datuaren aurreko urtebeteko epearen barruan), ez dute berriz aurkeztu beharrik izango, betiere, aldaketarik egon ez bada eta erantzukizuneko adierazpen bidez aldaketarik ez dela izan adierazten badute. Nolanahi ere den, aurreko lizitazioan eskatu ez zen dokumentazioa aurkeztea derrigorrezkoa izango da.

“B gutun-azala: Dokumentazio tekniko”

Agiri teknikoaren gutun-azal horretan honako datuak aurkeztuko dira gutxienez:

Balioespenean oinarritzen diren esleitzeko irizpideen gaineko dokumentuak, hala nola:

Memoria teknikoak eta hobekuntzak, lehiatzailearen proposamena 21. baldintzako esleitzeko irizpideen argitaratze baloratu ahal izateko.

Proposamen teknikoak jasotzen duen memorian adierazi behar dira eskakizun teknikoaren orrietan zehaztutako xehetasun guztiak.

Lehiatzaileek eskaintza hobeto azaldu eta balioesteko egoki iriztitako datu eta erreferentziak erantsi ahal izango dituzte.

Gutun-azal honetan ez dira sartuko, inola ere, diru-eskaintza edo era automatikoan balioetsi daitezkeen irizpideei dagokien bestelako datuak, izan ere, datu horiek C. gutun-azalean sartu behar dira.

Lehiatzaile batek datu horiek B gutun-azalean sartzen baditu, enpresa hori esleipen prozeduratik baztertuta geldituko da eta ez da aurkeztu duen C gutun-azala irekiko.

"C gutun-azala: Diru-eskaintza"

Diru-eskaintza egingo da baldintzen orri hauen II. ERANSKINean datorren ereduaren arabera eta, beraz, eredu horretan agertuko da lehiatzailearen diru-eskaintza. Diru-eskaintzan adierazitako zenbatekoak kontzeptu hauek guztiak jasoko ditu: gastu guztiak, kontratua formalizatzeko gastuak (baleude), mota guztietako zergak, kontratua gauzatzen den bitartean indarrean jarri nahiz alda daitezkeenak barne. Kontzeptu horiek ezingo dira kontzeptu bereiz gisa aurkeztu.

Proposamena enpresa elkarte batek egiten baldin badu, elkarte osatzen duten enpresa guztiek sinatu beharko dute proposamena.

Dokumentazioa aurkeztuko da jarraibide hauen arabera:

1. Aipatutako dokumentuen jatorrizkoak edo orijinalak aurkeztu behar dira, edo indarrean dagoen araubidearen arabera benetakotzat jotzen diren kopiak.
2. Kontratuaren esleipen-erabakiaren aurka errekursoak aurkezteko epeak amaitu eta errekurtsorik aurkeztu ez bada, eskaintzarekin batera aurkeztutako dokumentuak aurkeztu dituen enpresaren eskura geratuko dira.
3. Nolanahi ere den, esleipen-erabakia irrimo bilakatu eta hiru hilabeteko epea igaro ondoren, Administrazioak erabaki ahal izango du lehiatzaileek jaso ez dituzten dokumentuak deuseztatzea.
4. Eskaintza egiteko aurkeztzen diren dokumentuak Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzitako egongo dira (euskaraz edo gaztelaniaz). Beste hizkuntzaren batean aurkeztzen bada, dagokion itzulpen ofiziala erantsiko da.
5. Proposameneko edukiak egiazkoak ote diren egiaztatu ahal izango du Urola Kostako Udal Elkarteak, bai esleipenaren aurretik, bai eta ondoren ere. Enpresak adierazitako datuak eta egoerak faltsuak baldin badira, kontratua amaitutzat jo ahal izango da, kontratuaren jabeak kontratua ez betetzeagatik. Horrenbestez, kontratuaren jabeak jarritako behin betiko bermea galduko du edo, jarri ez badu, berme horren kopuru bereko kalte-ordaina ordainduko du.
6. Enpresa lehiatzaileak, egoki irizten badio, adierazi ahal izango du (IV. ERANSKINeko eredia erabiliz) proposamena osatzen duten dokumentu eta informazioetatik zeintzuk diren konfidentzialak, sekretu tekniko edo komertzialekin lotura dutelako, betiere lotura hori behar bezala arazoituta. Konfidentziasunari buruzko dokumentu hori egin ahal izango da, enpresak hala nahi badu, gutun-azal bakoitzari buruz. Dena dela, diru-eskaintzak ez du, inola ere, konfidentziasun izaerarik izango.

24.- KONTRATAZIO-MAHAIA

Kontratazio Organoak Kontratazio Mahaiaren laguntza jasoko du. Kontratazio Mahaiaren egitekoa izango da eskaintzak balioestea. Honela osatuko da Kontratazio Mahaia:

- a) Lehendakaria: Urola Kostako Udal Elkartekoa.

- b) Mahaikideak:
Idoia Odriozola Eizaguirre, Prestakuntza eta Enplegu Saileko arduraduna.
Olaia Sanz Garmendia, Prestakuntza eta Enplegu Saileko teknikaria.
Izaskun Altuna Mariezkurrena, Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzailea
- c) Idazkaria: Xabier Urdangarin Lasa, Euskara Zerbitzuaren arduraduna.

Kontratazio Mahaia egoki eta beharrezko jotzen dituen txosten teknikoak egiteko eskatu ahal izango du, kontratua esleitu ahal izateko.

25.- AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK IREKITZEA

Dokumentuak kalifikatzea

Eskaintzak aurkezteko epea amaitutakoan, Kontratazio Mahaia A gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak sailkatu eta kalifikatuko ditu, epeak eta edukia kontuan hartuta. Horretarako, lehendakariak gutun-azalak irekitzeko aginduko du. Kontratazio-mahaia aurkeztutako dokumentuetan akats materialak atzematen baditu, interesdunei posta elektronikoen bidez jakinarazi eta gehienez ere hiru laneguneko epea emango die akats horiek zuzendu edo Kontratazio Mahairen aurrean konpontzeko. Komunikazio horiek egingo dira A gutun-azal horretan bertan lehiatzaileak adierazitako helbide elektronikora.

3/2011 LEDren 82. artikuluan ezarritako ondorioetarako, Kontratazio Mahaia enpresariei eskatu ahal izango die aurkeztutako ziurtagiri eta dokumentuen gaineko argibideak emateko edo osagarri diren beste dokumentu batzuk aurkezteko. Hori egiteko, Erregelamenduaren 22. artikulua ezartzen duenez, gehienez ere bost eguneko epea emango die. Epe horretan ezingo da aurkeztu proposamenak aurkezteko epean edo gorago adierazitako akatsak konpontzeko epean aurkeztu behar zen dokumenturik.

Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 146.1 artikulua adierazitako dokumentuak sailkatu eta aurkeztutako agirietan leudekeen hutsune eta hutsegiteak konpondu ondoren, Kontratazio Mahaia hautatzeko irizpideak betetzen dituzten enpresak zehaztuko ditu. Kontratazio Mahaia berriaz adieraziko ditu lehiaketan parte hartzeko onartutakoak, baztertutakoak eta baztertzeko arrazoiak.

Eskaintza tekniko B gutun-azalak ireki eta baloratzea

Kontratazio Mahaia kontratatzailearen profilaren bidez (www.urolakosta.eus) eta posta elektronikoz jakinaraziko die lizitatzaileei noiz (eguna eta ordua) eta non egingo den lehiaketan parte hartzeko onartutakoen zerrenda ezagutzera emateko ekitaldi publikoa (aurrez A gutun-azalean aurkeztutako dokumentuak aztertuta).

Baztertutako eskaintzak esleitzeko prozeduratik kanpo geratuko dira eta lehiatzaile horien B eta C gutun-azalak ez dira irekiko.

Jarraian, onartutako lehiatzaileen eskaintza tekniko B gutun-azalak irekiko dira.

Ondoren, Kontratazio Mahaia proposamen teknikoak kontratazioaren eskaria egin duten zerbitzu tekniko esku utzi ahal izango ditu, eskaintza teknikoak baldintzen orrietan ezarritako irizpideen arabera azter ditzaten. Halaber, Kontratazio Mahaia egoki jotako bestelako txostenak ere eskatu ahal izango ditu. Aipatutako txosten eta azterlanak jaso ondoren, Kontratazio Mahaia onartutako eskaintzak balioetsiko ditu, baldintzen orrietan ezarritako balorazio-irizpideen argitara.

Diru-eskaintzen C gutun-azalak ireki eta baloratzea

Eskaintza teknikoak aurreko paragrafoetan zehaztu den bezala ireki eta baloratu ondoren, diru-eskaintzen C gutun-azalak irekiko dira. Kontratatzalearen profilaren bidez (www.urolakosta.eus) eta posta elektronikoz

jakinaraziko zaie lizitatzaleei noiz (eguna eta ordua) eta non egingo den C gutun-azalak irekitzeko ekitaldi publikoa.

Ekitaldi horretan, lehendabizi, balio-judizioetan oinarritutako irizpideetan proposamen bakoitzak jasotako balorazioaren berri emango da eta, ondoren, C gutun-azalak irekiko dira.

Horren ondotik, Kontratazio Mahaiak diru-eskaintzak aztertu eta beharrezko irizten dituen txosten teknikoak eskatuko ditu. Mahaiak baztertu egingo ditu, arrazoitutako ebazpenaren bidez, honako egoeraren batean dauden proposamenak: proposamena eta onartu eta aztertutako dokumentazioa bat ez baldin badatoz; ezarritako eredutik nabarmen urruntzen baldin bada; proposamenaren diru-eskaintzak akats nabarmena baldin badu; edo, lehiatzaileak onartzen baldin badu proposamenak akats edo okerrak dituela eta bere horretan ez dela bideragarria. Letraz eta zenbakiz adierazitako diru-eskaintzak bat ez baldin badatoz, lehendabizikoa hartuko da ontzat, betiere eskaintza osatzen duten dokumentuetatik zuzena zein den garbi geratzen ez bada.

26.- ESLEIPENA

Kontratazio Organoak, Kontratazio Mahaiaren proposamenaren haritik, aurkeztutako proposamenak sailkatu egingo ditu, puntu gehien eskuratu dituenetik gutxien eskuratu dituenera, baldintzen orriotan finkatutako esleipen-irizpideen argitara.

Kontratazio Organoak ahalmena izango du, aukeran, kontratua proposamen onuragarrienari esleitzeko, baldintzen orriotako irizpideetan oinarrituta, edo prozedura ezerezean geratu dela adierazteko, betiere esleipen irizpideetan oinarritu eta behar bezala arrazoituta.

Kontratazio Organoak ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena aurkeztu duen lehiatzaileari eskatuko dio honako eginbide hauek burutu izana egiaztatzeko, hamar laneguneko epearen barruan, hori egiteko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita:

- Zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak beteta dituela egiaztatzeko ziurtagiriak aurkeztu (agiri horiek eskaintzarekin batera aurkeztu ez baditu).
- Erantzukizun zibileko polizaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztu (gutxienez 600.000,00 euroko estaldurarekin), baldintzen orriotako hamabigarren baldintzan zehazten denaren arabera.
- behin betiko bermea jarri.
- Esleipenduna enpresen elkarte bat bada, kontratua sinatu aurretik esleipendunak egiaztatu behar du aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu dela eta dagokion IFZ baduela.
- Kontratazio Organoak eskatzen dizkion bestelako dokumentuak aurkeztu, besteak beste lan arriskuen prebentzioari buruzko III. ERANSKINean zehazten direnak.

Kontratazio Organoak kontratua esleituko du bost laneguneko epearen barruan, dokumentu eta egiaztagiririk jasotzen dituenetik hasita.

Ekonomikoki eskaintza onuragarriena egin duen lizitatzaleari kontratua esleitzen ez bazaio (bete beharrezko baldintzak bete ez dituelako), beste deialdi bat egin baino lehen, Administrazioak errekerimendua bidal diezaioteko hurrengo lizitatzaleari (lortutako puntuazioaren hurrenkeran). Lizitatzale horri 10 egun baliodunek epea emango zaio lehen adierazitakoa betetzeko.

Esleipena hiru hilabeteko epearen barruan egingo da, gehienez ere, proposamenak ireki eta hurrengo egunetik hasita.

Esleipen-erabakia Kontratazio Organoak hartuko du, arrazoitutako ebazpenaren bidez. Ebazpen hori lehiatzaileei jakinarazi egingo zaie eta argitara emango da kontratazio organoaren kontratatzailearen profilean.

27.- KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua gauzatuko da formalizatzen denean. Litzazioaren eta esleipenaren iragarkien gastuak Urola Kostako Udal Elkartearen kontura izango dira.

Esleipenduna enpresen elkarte bat bada, kontratua sinatu aurretik esleipendunak egiaztatu behar du aldi baterako enpresa-elkarte gisa legez eratu dela eta dagokion IFZ baduela.

Kontratua administrazio-agiri gisara formalizatuko da 15 laneguneko epearen barruan, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Agiri hori bere baitan aski izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Halere, esleipendunak kontratuaren eskritura publikoa egitea eskatu ahal izango du. Horrela bada, esleipendunak ordainduko ditu formalizazio-gastuak.

Esleipendunaren errua dela eta kontratua ez bada formalizatzen gorago adierazitako epearen barruan, Udal Elkarteak erabaki ahal izango du amaitutzat ematea eta behin betiko bermea inkautatzea. Kontratua ez bada formalizatu Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kalte-ordaina ordainduko dio kontratuaren jabeari, berandutzeak eragin ditzakeen kalte eta galerengatik.

HIRUGARREN KAPITULUA - IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

28.- IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Baldintzen orri hauen argitara egiten den kontratuak administrazio-izaera du eta orriotan xedatzen ez direnetan kontuan hartuko da honako araubidea: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina; urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartu zuen Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra; eta, bestelako lege xedapenak, administrazio publikoen kontratuetan kasuan kasu aplikatzekoak direnak.

Administrazio-baldintzen orriotan adierazitakoa kontraesanean badago espedienteko gainerako dokumentazio teknikoarekin, orriotan ezarritakoak izango du lehentasuna.

29.- JURISDIKZIO ESKUDUNA

Kontratua interpretatzen, aldatzen, amaitzen edo amaitzearen ondorioak zehazten sor litezkeen gorabeherak erabakitzeko gorago aipatutako araubidea hartuko da kontuan eta isiltasunaren kasuan kontratazio-organoak erabakiko ditu. Erabaki horiek amaiera emango diote administrazio-bideari eta, horien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, jurisdikzio hori arautzen duen Legearen arabera. Dena dela, interesdunek Herri Administrazioen Ohiko Administrazio Prozeduraren 39/2015 Legearen 123 eta 124. artikuluetan aurreikusitako berraztertze errekurtsoa aurkezteko aukera dute.

EGINBIDEA:

Eginbide hau nik egin eta sinatzen dut, Urola Kostako Udal Elkarteko idazkari-kontuhartzaileak, adierazteko administrazio-baldintza zehatzen orri hauek onartu dituela Udal Elkarteko lehendakariak, 2017ko urtarrilaren 25eko B17/0007 zenbakiko ebazpenaren bidez.

Zarautzen, 2017ko urtarrilaren 25ean

I. ERANSKINA

ADIERAZPENA EGITEKO EREDUA

Nik, jaunak/andreak, adinez nagusi eta NAN zenbakiaren jabeak (helbidea; tel.; faxa), enpresaren izenean (IFZ; helbidea; tel; faxa), jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridiko osoa ditudalarik,

ADIERAZTEN DUT

- 1) Nik eta ordezkatzan dudan enpresak (horrela baldin badagokio) gaitasuna dugu administrazio publikoarekin kontratatzeko, izan ere jarduteko gaitasuna dugu eta ez dugu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikulua aurreikusitako debeku-egoerarik. Bereziki, berariaz aitortzen dut ez duela zehapen irmorik jaso laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko arau-hauste oso larriengatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 60. c) artikuluan ezarritakoari jarraiki.
- 2) Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga arloko eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean betetzen ditut, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorreko (1098/2001 ED, urriaren 12koa) 13 eta 14. artikuluek aurreikusten duten irismenarekin.
- 3) Gure sozietatea jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda dago kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez du baja eman zerga horretan.
- 4) "ePARTAIDETZA KOMUNITATEA" egitasmoko jarduerak burutzeko zerbitzuaren kontratazioa (2016IKIE0005) arautzen duten administrazio baldintzen orriak, eskakizun teknikoaren orriak eta gainerako dokumentuak ezagutzen ditut eta oso-osorik eta salbuespenik gabe onartzen ditut.
- 5) Ordezkatzen dudan enpresak betetzen ditu indarrean dagoen araubideak kontratu horren objektu diren jarduerak burutzeko ezartzen dituen baldintza eta eskakizun guztiak eta kontratu honen berariazko baldintzak.

(Lekua, data eta sinadura)



II. ERANSKINA

DIRU-ESKAINZA

Nik,, adinez nagusi eta NAN..... zenbakiaren jabeak (helbidea; tel.; faxa), nire izenean edo enpresaren izenean (IFZ; helbidea; tel.; faxa) jarduteko gaitasun juridiko osoa dudalarik,

ADIERAZTEN DUT

Esleipendun gertatuz gero, lan guztiak eskaintzan zehaztu bezala eta baldintzen orrietan finkatzen diren betebeharrei eta baldintzei lotuta burutuko ditudala, honako prezioan:

Oinarriaeuro
BEZ %....., euro
Prezioa guztira euro

Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak, hala nola, gastuak, tasak, arlo guztietako zergak eta irabazi industrialak.

Orduko prezioa honakoa da:

Oinarriaeuro
BEZ %.....,euro
Orduko prezioa guztira euro

Prezio horretan kontzeptu guztiak sartuta daude, hau da, edozein arlo fiskaleko zerga, gastu, tasa edo arbitrioak, eta baita BEZa eta kontratuaren jabearen industria-irabazia ere.

(Lekua, data eta sinadura)

III. ERANSKINA

LAN-ARRISKUEN PREBENTZIORI BURUZKO BALDINTZEN ORRIAK

Baldintza-orrion helburua da Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan edo Udal Elkartearen aginduz beste leku batean zerbitzuak kudeatzeko kontratu baten bidez diharduten kontratu jabeek lan arriskuen prebentzioaren arloan bete behar dituzten baldintzak finkatzea.

I. JAKINARAZTEKO BETEBEHARRA.

a) Eskaintza egiteko unean

Kontratuaren jabeak bere eskaintzan honakoak adierazi behar ditu:

1. Bere enpresan indarrean dagoen prebentzioaren antolamenduaren deskribapena, enpresaren jardueran izaera orokorrarekin arriskuak prebenitzeko ezarritako kudeaketa-sistema.
2. Koordinazio-arduraduna, laneko arriskuen prebentzioaren arloan. Enpresa esleipendunak honako hauek adierazi beharko ditu bere eskaintzan:
 - i. Lan-arriskuen prebentzioaren arloan koordinatzaile gisa izendatutako pertsonaren datuak.
 - ii. Enpresaren agiria, pertsona hori izendatzen duena.
 - iii. Lan-arriskuen prebentzioaren arloko maila akademikoa edo esperientzia-urteak.

b) Gauzatze fasea

b.1) Jarduera hasi aurretik

Jarduerari ekin aurretik kontratuaren jabeak honakoak jakinarazi behar dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteari:

1. Kontratututako zerbitzuari dagokion lan arriskuen prebentziorako plangintza (arriskuen ebaluazioa, segurtasun neurriak, babesteko ekipo indibidualak, taldeko babes ekipoak, prestakuntza...). A eranskina behar bezala bete eta eskatutako dokumentuak erantsita.
2. Zerbitzua burutzeko kontratuaren jabeak izendatutako arduraduna.
3. Koordinazio bilera enpresa jarduerak egoki koordinatu eta plangintza egiteko.

Izendatutako pertsonak izango du zuzenean (kontratututako enpresak barne) bere esanetara lanean ari diren pertsonen lan arriskuei eta hartu beharreko segurtasun neurriei buruzko informazioa eta prestakuntza emateko ardura; halaber, bere eginkizuna izango da lan arriskuak prebenitzeko arauak bete eta betearaztea.

Esleipendunaren betebeharra da kontratuaren esku jartzea lanak egoki egin ahal izateko ekipoak eta bitartekoak. Horrez gain, zerbitzua burutu behar duten langileek prestakuntza egokia eduki behar dute eginkizun horien lan arriskuen prebentzioaren arloan.

b.2) Zerbitzuak ematen ari direla.

Lanak egiten diren bitartean, enpresako pertsona arduradunak honakoak jakinaraziko dizkio idatziz Urola Kostako Udal Elkarteak izendatutako pertsona arduradunari:

1. Edozein aldaketa garrantzitsu kontratuaren jardueran, langileen laneratzeak edo uzteak, zerbitzua ematen sortutako edozein gertakari. Idatzi horretan adieraziko da, baita ere, aldaketak zer behar sorrarazi dituen segurtasunaren eta osasunaren arloan.
2. Kontratu-jabearen langileek istripuren bat izaten badute, idatziz jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari. Komunikazio idatzian adieraziko da istripua nola gertatu zen, zer lesio izan diren, zergatik gertatu den, eta zer neurri hartu diren horren inguruan.

II. KONTRATATUTAKO ENPRESAREN EGINBEHARRAK ZERBITZUA BURUTZEN ARI DELA.

1. Lanei ekin aurretik, kontratuaren jabeak izendatutako arduradunak lanak egiteko eremua bisitatuko du, horretarako Urola Kostako Udal Elkarteak izendatzen duen pertsonarekin batera. Bisita horretan lanen eremua mugatuko da, eta erabakiko da fisikoki eremua mugatzea beharrezkoa den ala ez (ingurua mugatu, itxi, eskudelak jarri eta abar).
Horrez gain, bisita horretan zehaztuko dira lanen eremuetara sartu eta horietan aritzeko prebentzio neurriak (seinaleak, sartzeko baimenak, balizak...) eta babes ekipoak (norbanakoarenak nahiz taldekoak). Halaber, zehaztuko dira neurri eta ekipo horien derrigortasuna, maiztasuna, kokapena eta gisa bereko zehaztapenak.
2. Kontratuaren jabeak eta Urola Kostako Udal Elkarteak zerbitzua burutzen den unean egin ezin diren jarduerak (jarduera bateraezinak) zehaztuko dituzte, eta idatziz adieraziko dute bateraezinak diren jarduerak burutzeko debekua ezarriko dute.
3. Kontratuaren jabeak zerbitzuari atxikitako langileek prestakuntza egokia izango dute, eta, ziurtagiri ofizialak izango dituzte (beharrezko denean) behar bezala eguneratuta. Langile horiek Urola Kostako Udal Elkartearentzat burutzen ari diren lanari buruzko prestakuntza eta argibide zehatzak jasoko dituzte, bereziki segurtasunarekin eta osasunarekin zerikusia duten alderdi guztietan. Horrela ez baldin bada, pertsona horrek ez du baimenik izango zerbitzuko lanak egiteko.
4. Laneko agintaritzak zehapen bat ezartzen badiu Urola Kostako Udal Elkarteari, kontratu-jabearen langileek laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko neurriak bete ez dituztelako, Urola Kostako Udal Elkarteak dagozkion legezko eginbideak hasi ahal izango ditu kontratu-jabearen aurka.
5. Kontratututako zerbitzua burutzen esleipendunak erabiltzen dituen laneko ekipo, babes ekipo (norbanakoen ekipo nahiz talde ekipo) eta materialek laneko arriskuak prebenitzeko indarrean dagoen araubidea bete behar dute. Esleipendunak Urola Kostako Udal Elkartearen eskura jarri behar ditu araubidea betetzen dela egiaztatzeko ziurtagiriak.
6. Urola Kostako Udal Elkartearen zentro batean ari den edo Udal Elkartearen esanetara ari den langile orok egiten ari den lanarekin bat datorren janzkera izango du, betiere egoera onean, garbi eta txukun.
7. Urola Kostako Udal Elkartearen zentroetan ari diren edo Udal Elkartearen aginduetara lan egiten duten langile guztiak behar bezala identifikatuta egongo dira, bai eta zerbitzua ematean erabiltzen dituzten ekipamenduak ere.
8. Hilero, enpresa kontratu-jabeak txosten ofizialaren kopia bat igorriko dio Urola Kostako Udal Elkarteari, zerbitzua eskaintzen ari dela gertatutako istripuei buruzkoa. Txosten horretan adieraziko dira gertatutako istripuak eta istripuak eragin zitzaizketen gertakari eta gorabehera guztiak.
Pertsonak edo instalazioek istripu larriren bat izaten badute, edo unean larritzat edo oso larritzat har daitekeen istripuren bat gertatzen bada, berehala jakinaraziko zaio Urola Kostako Udal Elkarteari.
9. Kontratuaren jabeak Urola Kostako Udal Elkarteari bidali behar dizkio Gizarte Segurantzako, lan mutuako eta lan istripuen aseguruak kuotak egunean ordainduta dituela egiaztatzeko agiriak.
10. Kontratu-jabeak ezingo ditu lanak azpikontratu Urola Kostako Udal Elkartearen berariazko baimenik gabe. Horrela izanez gero, enpresa azpikontratuak edo autonomoen erregimeneko langileek dokumentu honetako eskakizun berak bete beharko dituzte. Kontratu-jabea izango da eskakizun horiek eskatzearen eta ez betetzearen erantzule Urola Kostako Udal Elkartearen aurrean.
11. Urola Kostako Udal Elkarteak ikuskatu ahal izango ditu, baita ere, azpikontrata edo autonomoen erregimeneko pertsona horiek.



A ERANSKINA: ENPRESA JARDUEREN KOORDINAZIOA

Kontratatutako enpresaren datuak			
Sozietatearen izena:			
IFZ:		Jarduera:	
Kontratatutako zerbitzua			
Hasiera data		Amaiera data	
Kontratatutako zerbitzuaren solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Lan segurtasunaren eta osasunaren arloko solaskidea			
Izen-abizenak			
Lanpostua			
Telefonoa		e-maila	
Prebentzio-antolaketa modalitatea			
<input type="checkbox"/> Kanpoko prebentzio zerbitzua: _____			
<input type="checkbox"/> Izendatutako langilea: _____			
<input type="checkbox"/> Bertako prebentzio-zerbitzua			
<input type="checkbox"/> Prebentzio-zerbitzu mankomunatua			
<input type="checkbox"/> Enpresaburuak bere gain hartuta			
Lan istripu eta lan gaixotasunen mutua			
<input type="checkbox"/> Zure enpresa atxiki zaion mutuaren izena: _____			
<input type="checkbox"/> Behar izanez gero, hartuko zaituen osasun-zentroa: _____			
JARDUERAREN HASIERAN AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK			
1. Kontratatutako/azpikontratatutako zerbitzua emango duten langileen zerrenda (Bete datuak 1. Langileen izenen zerrenda)			
2. Kontratatutako zerbitzua burutuko duten azpikontrata edo autonomoen zerrenda (azpikontratek ondoren zehaztutako dokumentazioa aurkeztu behar dute) (Bete datuak 2. Azpikontraten edo autonomoen zerrenda)			
3. Gizarte Segurantzako ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (ziurtagiri horretan sartuta agertuko dira zerbitzua eskaintzen parte hartuko duten langile guztiak) edo, bestela, hileko ordainketaren TC1 agiria eta autonomoen hileko ordainketen ordainagiriak. Hilabete 1eko balioa du; beraz, iraupen luzeagoa duten kontratuetan eguneratutako ziurtagiria bidali behar da.			
4. Ogasuneko ordainketak egunean ordainduta daudela adierazten duen egiaztagiria (urte 1eko balioa du).			
5. Erantzukizun zibileko polizaren fotokopia eta ordainagiria (urte 1eko balioa du).			
6. Ituna kanpoko prebentzio-zerbitzu batekin, bertako (edo mankomunatutako) prebentzio-zerbitzuaren ziurtagiria edo izendatutako langilea, indarraldia adierazita.			
7. Idatziz egiaztatzea zerbitzua emango duten langileen osasuna zaintzeko betebeharrak bete direla, egin behar duten lanak dakartzan arriskuak kontuan hartuz.			
8. Egin behar diren lanetako arriskuen ebaluazioa eta prebentzio-jardueren plangintza.			
9. Segurutasun-plana edo, horren orde, eskaini behar den zerbitzuaren lan prozedura, jarraibide eta plangintza. (Urola Kostako Udal Elkarteak zehazten baldin badu)			
10. Zerbitzua eskaintzen erabiliko diren lan ekipoen zerrenda (makinak, ibilgailuak...) eta ekipo horien dokumentazioa (onarpen adierazpena, gida-baimenak, bestelako baimenak...). 3. Ekipo/makina/ibilgailuen zerrenda			
11. Langileek lan-arriskuen prebentzioari buruzko prestakuntza, egin behar duten lanerako beharrezko dena,			



jaso dutela egiaztatzen duen dokumentua.
12. Kontratuari atxikitako langileek ekipoak (makinak, ibilgailuak...) erabiltzeko baimenak badituztela egiaztatzeko agiriak.
13. Zerbitzuko jarduerak burutzeko behar diren babesteko ekipoak langileei eman zaizkiela adierazten duen egiaztageria.
14. Langileek burutu behar dituzten eginkizunen arriskuen ebaluazioari eta hartu beharreko prebentzio neurriei buruzko informazioa jaso dutela adierazten duen egiaztageria.
15. Enpresako arduradunaren zinpeko adierazpena (bete behar da honako dokumentua: 4. Zinpeko adierazpena eta langileen sinadura: segurtasun arauak eta jarraibideak).
16. Prebentzio baliabidearen izendapena egiaztatzeko dokumentua (horrela eskatzen duten lanetan)
OHARRAK
Azpikontratutako enpresako arduradunak kontratu-jabeari jakinarazi egin behar dizkio izendatutako langileen aldaketak, laneratzeak edo uzteak. Kontratutako/azpikontratutako enpresak ez baditu betetzen aipatutako eskakizunak, edo ez badu edozein aldaketa, gertakari edo istripu jakinarazten, kontratua desegin egin ahal izango da.



1. Langileen izenen zerrenda

ENPRESA	Langileak Izen-abizenak	NAN	GSko zk.	Lanpostua	Lanak hasi	Lanak amaitu





2. Azpikontraten edo autonomoen zerrenda

ENPRESA (Azpikontrata/LA)	IFZ	Jarduera	Eginkizunak	Laneko segurtasuneko eta osasuneko arduraduna	Kontratua hasi	Kontratua amaitu





3. Ekipo/makina/ibilgailuen zerrenda

Izendapena	Marka/modeloa	Erreferentzia Matrikula	Fabrikazio urtea	CE marka	Jarraibideen eskuliburua	Baimena



4. Zinpeko adierazpena

_____JAUNAK/ANDREAK

(Enpresaren ordezkaria)

_____ENPRESAKO _____

_____GISA

(Enpresan duen kargua)

(Enpresaren izena)

HELBIDEA _____

(Enpresaren helbidea)

UDALERRIA _____

POSTA-KODEA _____

LURRALDEA _____

ADIERAZTEN DUT:

1. Gorago adierazitako enpresak betetzen dituela Lan Arriskuak Prebenitzeko Legeak eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduak ezartzen dituzten xedapen eta betekizunak. Halaber, enpresa horrek prebentzio modalitatea ezarrita duela (bertako prebentzio zerbitzua edo kanpoko prebentzio zerbitzua), araubide horren argitara. Halaber, konpromisoa hartzen duela 31/95 Legearen (laneko arriskuen prebentzio legearen) 24. artikulua eta urtarrilaren 30eko 171/2004 EDak (aipatutako 24. artikulua enpresa-jarduerak koordinatzeari buruz ezartzen dituen xedapenak garatzen dituenak) aurreikusten dituenak zehatz mehatz betetzeko.
2. Horri dagokionez, egiazkoak direla eskabide honetako datuak eta benetakoak erantsitako egiaztagiriak. Horrenbestez, Urola Kostako Udal Elkarteari ESKATZEN DIO eskaera hau onartzeko eta sar dezala enpresa hau homologatutako enpresen zerrendan, bere instalazioetan jardun ahal izateko.
3. Lantokiko segurtasun arauetara eta larrialdietako jardunbideei buruzko informazioa jaso duela eta kontratazio honen objektu diren lanak egingo dituzten langileei informazio hori helarazi diela.

Zarautzen, 2017ko _____ren _____(e)an.

IZEN-ABIZENAK

KARGUA

SINADURA ETA ZIGILUA

KONTRATATUTAKO ENPRESA

IV. ERANSKINA (Aukerakoa)

ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIALA DELA ZEHAZTEKO DOKUMENTU- EREDUA FACILITADAS POR LA EMPRESA

Nik, jaunak/andreak (NAN zenbakia; helbidea), nire izenean (edo enpresaren izenean; helbidea; IFZ) jarduteko gaitasun juridiko osoa dudalarik, honakoa

ADIERAZTEN DUT

..... espediente kodea duen kontratazio-espedientera aurkeztutako gutun-azaleko (adierazi zein gutun-azal den) eskaintzaren honako informazio eta alderdi hauek konfidentzialak direla adierazten dugu, sekretu tekniko eta komertzialei loturikoak direlako:

Konfidentzialtasun hori honako arrazoi hauetan oinarritzen da:

(Lekua, data eta sinadura)